

Txostena. 2016



**Amets bat
lortzeko lanean**

Erakunde publiko finantzatzaileak



Departamento de Empleo,
Inclusión social e Igualdad

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta
Berdintasuna Sustatzeko Saila



Enplegu eta Gizarte
Politiketakoa Saila

Departamento de Empleo
y Políticas Sociales



Osasun Saila

Departamento de Salud



Bilboko Udala
Udal Etxebizitzak
Ayuntamiento de Bilbao
Viviendas Municipales



Gizarte Ekintza Saila
Área de Acción Social
Osasuna eta Kontsumoa
Salud y Consumo

Erakunde laguntzaileak



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



Banco de Alimentos de
Bizkaia
Bizkaiko Elikagaien
Bankua



Nola egin dezakezu bat gure proiektuarekin?

- **Boluntario gisa.** *Gizarte solidario baten konpromisoaren adierazle* gisa ulertzen dugu boluntarioria, eta hala bizi dugu.
- **Bazkide gisa.** Gizartea eraldatzeko konpromisoa lan egiten dugu, berdintasuna, askatasuna, justizia eta elkartasuna helburu hartuta.
- **Ekarpen ekonomiko bat eginez.**

BBK 2095 0009 88 5060146567

Modu batean edo bestean, gure gizartea eraldatzen lagun dezakezula pentsatzen baduzu, jarri gurekin harremanetan.



Egoitza

Langaran, 14 - behea. 48004 - Bilbo
Tel. 94 608 70 08 - Faxe. 94 608 70 09
bizitegi@bizitegi.org / www.bizitegi.org

jarrai gaitzazu:



Barrurantz begira, kanporantz begira

Bizitegin aurrerantzean egin beharreko lanaren plangintza antolatzen ari garenean, beti etortzen zaigu galdera berbera burura: zenbateko ahalegina egingo dugu erakunde barrurantz begira eta zenbatekoa kanporantz begira? Bi alderdiak funtsezkoak eta behar-beharrezkoak dira gizarte-inklusioren aldeko gure eginkizuna gauzatzeko. Baina baliabide urriak ditugunez, erabaki zailak hartu behar izaten ditugu askotan. Horregatik, batzuetan gure jardunak aldeetako baterantz jo du. Ez dago berez, kontraesanik bi helburu horien artean, elkarren beharra dute eta elkar osatzen dute. Kanpora begiratzen dugunean zein barnera begiratzen dugunean, gure helburua bat bera da: laguntzen ditugun pertsonen ahalik emaitzarik onenak lortzea. Eta, horretarako, geurea erakunde eraginkorra eta ilusioz betea izatea bezain garrantzitsua da gizartea kontzientziatzea baduela erantzukizuna gizarte-bazterketan eta ezinbestekoa dela erakundearen konpromisoa bazterketa desagerrarazteko.

Atzera begiratzen badugu, ikus dezakegu aldi batzuetan helburu horietako bati besteari baino pisu handiagoa eman diogula. Oro har, esan dezakegu azken urteetan geure barrura begiratzeko beharra izan dugula, gure esku-hartze soziala eraginkorra eta kalitatezkoa dela bermatzeko. Horren adibide garbiena duela hiru urte abian jarritako berrantolatze-prozesua da, eta etapa bat bete du 2016an, kudeaketa aurreratuari zilarrezko A aitzarespina jasota. Horrez gain, beste kezka nagusi bat gure proiektuaren gizarte-oinarria sendotzea izan da. Hau da, bermatzea Bizitegiren barruan pertsona multzo bat dagoela erakundearen helburu nagusiak betetzen direla zaintzen duena eta aldaketa-egoera honetan izan beharreko estrategia etengabe hausnartzen duena. Horren bi erreferente garrantzitsu Aholkularitza

Kontseilua sortzea eta boluntariotzaren estrategia berri eta asmo handikoa dira.

2016. urtean, barrua/kanpoa tentsio hori nola gauzatu zen ebaluatzeko, argi eta garbi esan dezakegu Bizitegiren kanpo-proiektzioari eman zitzaiola garrantzi handiagoa. Eta hori ez da inprobisazioa edo kasualitatea izan; aitzitik, uste sendo baten emaitza da: salaketa- eta sentsibilizazio-ekintza indartu behar genuen, zertxobait ahulduta egon baitzen aurreko etapetan. Txostenean ikus daitekeenez, hainbat ekintzatan, askotariko ekintzatan hartu du parte Bizitegik gizarteari bere mezua igortzeko. Dela *Etxegabe Eskubidedun* kanpaina, dela Zinema Jaialdia (Homeless Film Festival), dela Giza Eskubideen Egunean ospakizun handiagoa eginez, *Eskubideei abesten* ikuskizunarekin.

Baina Bizitegik kanpo-proiektzioarekin duen kezka ez da mugatzen oraintsu aipatutako alderdi agerikoenetara, ez da alderdi ikusgarrienetara mugatzen, eta ez dira ardatza. Badira konpromiso hori agerian uzten duten beste ekintza batzuk ere: komunitatean gehiago parte hartzea, langileek, erabiltzaileek eta boluntarioek auzotako ekarteekin eta mugimenduekin elkarlanean jardunez; hirugarren sektore sozialeko erakundeekin eta administrazioekin ditugun harremanetan atentzio handiagoa jarritz; ikastetxeekin ikasleak sentsibilizatzeko programetan dugun lankidetzaren sendotuz; eta abar.

Jakin badakigu tentsio horrek ahalik eta positiboena izan behar duela eta lortu behar dugula helburu bategi bestea ez ezerezteko edo ahultzea. 2017. urterako, Zuzendaritza Batzordeko zein Bazkideen Batzarrak konpromiso argia du dinamika positibo hori errealitate bihurtzeko.

BIZITEGIk 1980an ekin zion bere jardunari, Bilboko Otxarkoaga auzoan, komunitate-lana oinarri zuela. Geroago, 1988an, irabazi-asmorik gabeko elkarte bihurtu zen, eta 1997an Balio Publikoko Entitate aitortpena jaso zuen.



Etxegabe Eskubidedun Kanpaina. **Bizitegi Elkartasun Saria. I. BBK DEIA ELKARTASUN SARIAK**

XEDEA

Elkarte-izaerako erakunde bat gara, bazkideek, profesionalek, erabiltzaileek eta boluntarioek osatua, eta Bizkaian baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak eta bazterturik dauden pertsonak gizarteratzea da gure lana. Horretarako, **esku hartzeko prozesuak** egiten ditugu, pertsona horien bizi-baldintzak hobetzeko, eta, horrez gainera, **sentikortzeko eta salatzeko ekintzak** egiten ditugu, gizarte bidezkoago bat eraikitzeko kontzientzia sorrarazteko. Xede hori betetzeko, pertsona da funtsezko balioa, eta komunitatea da pertsonaren garapenerako lekua.


IKUSPEGIA

Honelako erakundea izan nahi dugu:

- **Sendoa eta parte-hartzailea**, proiektuaosatzen duten pertsona guztien konpromiso handia izango duena eta partaidetzazko gobernantza baten bidez jardungo duena.
- **Eraginkorra eta iraunkorra**, emaitza objektiboak eta neurgarriak lortuko dituen, arduraz erabiliko dituen eskura dituen baliabideak, kudeaketa aurreratuko eredua baliatuko duena eta finantzatzeko bideak dibertsifikatu eta berriak bilatuko dituen; betiere, bere xedea beteko duela eta eragin luzea izango duela ziurtatzeko.
- **Ilusioz betea eta berritzailea**, partaide guztien atxikitze gogotsua eta ilusiozkoa behar duena, sormenaren bidez jardun-modu berriak eratzeko.
- **Erreferentziazkoa gizartean**, onartua eta eragiteko gaitasuna izango duena, gizartearentzat erabilgarri izango diren zerbitzuak emango dituen, itun iraunkorrak landuz administrazioekin eta gure helburu eta balio berberak dituzten erakundeekin.
- **Pertsona boluntarioen hartzailea**, bazterketaren aurkako borrokan haien konpromiso pertsonala eta soziala eskaintzen duten pertsonen ekarpenentzat gune eragingarriak sortzeko gai izango dena.

BALIOAK

- **Partaidetza**, proiektuaren funtsezko balioa da, pertsona aintzatetsi eta haren protagonismoa nabarmentzen baititu. Pertsona guztiek elkartean jardunean eta komunitatean partaidetza gogotsua izan dezaten sustatzen eta balioesten dugu, norberaren egitekoetatik abiatuta eta proiektu komun baten kontzientzia izanda.
- **Elkartasuna**, guztion interesean lan egitean ulertzen dute pertsonak haien gaitasunek zentzua eta gizarte-erabilgarritasuna erdiesten dutela.
- **Gardentasuna**, zintzotasuna ziurtatzeko estrategia, kudeaketa-lan eta esku-hartzeen prozesuak betetzean.
- **Ardura**, pertsona guztiek jarrera arduratsua izan behar baitute proiektuan eta, gainerako pertsonekin batera, taldeko eta elkarteko prozesuetan parte hartzean.



Taldea



E: emakumeak; G: gizonak


Aukera 18. 2016eko ebaluazioa eta 2017ko kudeaketa-plana

1HE. Sakontzea, erabiltzaileen bizi-baldintzak hobetuko dituen kalitateko esku-hartze batean

2016ko lorpenak:

- Kasuen kudeaketako metodologia ezartzea Etixerik gabeko Zerbitzuetan.
- Onarturen erabiltzaileak Unitateko jardueretan parte hartzea.
- Aisialdiko eta Kulturako jarduerak sustatzea.
- Eskaera zentralizatuko prozesuarekin funtzionatzea.

Egoera hobean eta/edo berean dauden erabiltzaileen ehunekoa



2017ko plana:

- Esku-hartze Ereduari buruzko hausnarketa (inklusio-moduak eta eskakizun gutxiago).
- Onartu eskakizun txikiko zentroa berdefinitzea.
- Bizi-kalitatearen eskalak definitzea.

2HE. Bultzada ematea salaketa- eta sentsibilizazio-ekintzei, gizarte justuagoa eraikitze bidean aurrera egiteko.

2016ko lorpenak:


- Etxegabe Eskubidedun kanpaina: Argazki-erakusketa Metro Bilbaon eta Destuko Unibertsitatean, eta kaleko ekintza, publizitate ekologikoa.



www.sintechoconderechos.org
Argazki-erakusketa. Deustuko Unibertsitatea

- Zine eta antzerkiaren bidezko sentsibilizazioa. Zenbatu taldea, Homeless Film Festivalen lehen edizioa.
- Biltzar eta unibertsitateetan 3 prestakuntzatan eta 10 ponentzietan parte hartzea.
- Giza Eskubideen aldeko nazioarteko egunetan eta jardunaldietan parte hartzea.

Sentsibilizazio- eta salaketa-ekintzen kopurua



2017ko plana:


- Ikastetxeetan sentsibilizazioa egiteko proiektua, erabiltzaileen testigantzekin.
- Zenbatu eta Zinea - Homeless Film festival proiektuekin jarraitzea.
- Bloga sustatzea, edukiak partekatzeko.

3HE. Komunitatea sustatzea, gizarteratze-prozesua garatzeko funtsezko bide gisa.

2016ko lorpenak:

- Auzoetako jardueretan parte-hartze proiektiboa izatea.
- Boluntarioen parte-hartzeari buruzko proiektua.
- Berdintasun Plana eta berdintasun-jarduerak egitea.

Ekintzetan parte hartzea, komunitatearekin



2017ko plana:


- Otxarkoaga, Bizidenda auzoari irekitako espazio moduan sustatzea.
- Erabiltzaileek boluntario moduan duten eginkizuna garatzea: Pausoka.
- Genero-berdintasuna lortzeko lanean sakontzea.

4HE. Sendotzea, bai oinarri soziala eta bai barne-egiturak, proiektuak epe luzera jarraitutasuna izango duela ziurtatzeko.

2016ko lorpenak:

- Antolakuntza berria ezartzea, aldaketak taldeetan eta profiletan.
- Zuzendaritza Batzordearen Aholkularitza Batzordea lanean hasia.
- Formakuntza Batzordeak berriro ekitea: Formakuntza.

Boluntarioen asebetetzea



2017ko plana:


- Langileen arteko topaketen maiztasuna handitzea.
- Konpetentziak alderatzea: jarduna eta lidergoa ebaluatzea.
- Esku-hartze Unitateetako talde berriak finkatzea.

5HE. Finkatzea, bideragarritasun eta jasagarritasun ekonomikoa.

2016ko lorpenak:

- Emaita ekonomiko orekatua.

Zerbitzuen okupazio-indizea



2017ko plana:

- Aurrekontuaren jarraipena Esku-hartze Unitateka.
- Udal Zerbitzuen 2018ko lizitazioa prestatzea.
- Erakundearen bideragarritasun ekonomikoaren azterketa.




Lankidetzaren ITP Prekin

6HE. Aurrera egitea kudeaketa-eredu aurreratu eta berritzaile bati esker sektorean erreferentziako erakunde izateko bidean.

2016ko lorpenak:

- ZILARREZKO A Saria Kudeaketa Aurreratuari (Eusko Jaurlaritzak ematen du).
- Eskakizun Txikiko Ikerketaren difusioa. SiiSek argitaratzea.
- Kudeaketa Aurreratuak Europako Astearen barruan, berrikuntzari eta estrategiari buruzko jardunaldiak antolatzea.

Jardunaldietan, batzarretan eta unibertsitateetan egindako ponentzien kopurua



2017ko plana:

- Interes-taldearen asebetetzearen neurketa.
- Berrikuntza: prozesua eta proiektuak.



Parte-hartze proiektiboa: Txikigunea, Errekaldeko jaietan

Bidelaguntza-eredua

Bidelaguntza-ereduaren helburua gizarteratze-prozesuak erraztea da, horretan ari diren pertsonen autonomia handiagoa eta bizi-kalitate hobea izan dezaten.

Zerbitzu-sarearen bidez banako nahiz taldeko prestazioak eskaintzen ditugu, helburu hori lortzen laguntzen dutelakoan. Pertsona bakoitzari eskaintzen zaionak doitu eta egon behar du haren ezaugarrietara eta bizi duen egoerara, horrez gain Banako Plangintza Orokor batek bideratua izan behar du, plangintza horrek zehazten baitu emango den laguntzaren esparrua. Jarraian, Bizitegiren Banako Plangintza Orokorren dimentsioak jaso dira, bai eta prestazioen/jardueren tipologia ere. Jarduerok zerbitzu-sarean egiten dira eta eragin zuzena dute pertsonaren funtsezko eremuetan.

FUNTSEZKO EREMUAK

EKONOMIA, ZUZENBIDEA ETA LANA

- 1 Egoera ekonomikoa
- 2 Lanbide- eta lan-egoera
- 3 Egoera juridikoa eta eskubideen titulartasuna eremu ekonomikoan, lanekoan eta etxebizitzaren eremuan

BIZIKIDETZA

- 4 Etxebizitza-egoera
- 5 Harremanetarako aukera, lotura afektiboak, banakako eta familia-elkarbizitzarako gizarte-laguntza jasotzea sare nagusi eta bigarren mailakoetatik
- 6 Harreman pertsonalak, bizikidetzakoak, familiakoak
- 7 Eguneroko bizitzaren antolaketa
- 8 Elkarbizitzako harremanak eguneroko bizitzan sortzen diren hainbat testuingurutan



Zenbatu. Giza Eskubideen Eguneko jardunaldia



Work gantxito, Artxandape Ikastolan

PERTSONA

- 9 Gaitasunak – Gizarte-trebeziak
- 10 Hezkuntza – Formazioa – Informazioa – Trebakuntza
- 11 Bizi-dinamismoak
- 12 Aldaketarako gaitasuna – Babes-sistemen erabilera

GIZARTEA ETA OSASUNA

- 13 Osasun-egoera
- 14 Osasun mentala
- 15 Droga-mendekotasuna – Adikzioak
- 16 Eguneroko zereginetarako ezgaitasuna, mendekotasuna

GIZARTEA

- 17 Gizarte-onarpena eta eguneroko komunitate-elkarbizitza
- 18 Harremanak, gizarte-ingurunera eta ingurune arauetara egokitzea
- 19 Besteekiko harremanak, eta parte hartzea gizartean

Bizitegiren Banako Plangintza Orokorreko pertsonaren funtsezko eremuak, Eusko Jaurlaritzaren *Gizarte Bazterketaren Diagnostikoa eta Balorazioa egiteko Tresna Tekniko Bateratuan* oinarrituta.

Bizitegi zerbitzuetako jarduerak

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK



Banakako eta taldekako aholkularitza; laguntza eta jarraipena egoera judizialetan; dokumentazioa eta prestazio ekonomikoak kudeatzeko eta tramitzeko laguntza

LANPOSTU BATI BEGIRAKOAK



Kartoi-tailerra, larru-tailerra eta *Bizidenda* arropa-denda

LAN- ETA/EDO PRESTAKUNTZA-ORIENTAZIOA



Lan- eta trebakuntza-orientazioa; lan-egoeraren jarraipena; aktibazio-tailerra

ERREFERENTZIA



Pertsonaren gizarte-sarearekin koordinazioa: erreferentzia-baliabideak, familia... Dirua administratzea

LOTURA



Zerbitzuan hartzea, jaialdiak eta ospakizunak, JaiKomitea

BATZARRAK



Egoitza-zerbitzuetako eta Eguneko Zentroetako batzarrak

AISIALDIA ETA JARDUERA LUDIKOAK



Parte-hartzea bultzatzeko eta aisialdirako heziketa-tailerra; kafe-solasaldia, zine foruma, lehiaketak, etab.; irteera kulturalak, ludikoak, etab.; oporrak

EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERAK



Ingurumenarekiko sentsibilizazioa; higiena, itxura, norbere burua zaintzea; elikadura; etxeko lanak



Sentsibilizazioa Lauaxeta Ikastolan



Homeless Film Festival

TEKNIKOAK, INSTRUMENTALAK



Kartoi-, arropa-, larru- eta zur-lantegiak

PRESTAKUNTZARAKOAK



Eskola-laguntza, informatika

GIZARTE-GAITASUNAK, GAITASUN KOGNITIBOAK ETA INSTRUMENTALAK



Errehabilitazio kognitiboa, gizarte-trebeziak, aldaketarako motibazioa, antzerkia; sormena, artea, kultura, musika, marrazketa, pirograbatua, eskulanak; josi, garbitu, bildu, trikotatu, lisatu eta sailkatu

OSASUNA



Informazioa, orientazioa, eta osasun-bidelaguntza; tratamenduaren jarraipena: bidelaguntzak, ospitalizazioak, sendagaien administrazioa; osasun-heziketa: kanpainak, hitzaldiak, monografikoak; kanpainak eta osasun-protokoloak, erizaintza, kirola, baratze ekologikoa, prebentzioa, erreflexoterapia, erlaxazioa

KOMUNITATE-LANA



Auzorako lana: jardunaldiak, jaiak, auzolana, Pausoka, Zenbatu, irratia

SENSIBILIZAZIOA/SALAKETA



Salaketa-ekintzen prestakuntza eta bertaratzea

FUNTSEZKO EREMUAK

GIZARTEA

PERTSONA

EKONOMIA, ZUZENBIDEA ETA LANA

GIZARTEA ETA OSASUNA

BIZIKIDETZA

Esku-hartzearen adierazleen azterketa

	LAGUNTZA JASO DUTENAK						EGOERA HOBEAN EDO BEREAN DAUDENAK (%)						BATEZ BESTEKO AURRERAPENA (%)						LORTUTAKO HELBURUAK (%)					
	2015			2016			2015			2016			2015			2016			2015			2016		
	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.
BATEZ BESTEKO OROKORRA	51,8	47,2	48,0	51,1	46,5	47,4	87	88	87	85	79	81	0,92	0,72	0,76	0,46	1,09	0,97	77,9	69,3	71,0	69,6	69,9	69,8
 Ekonomia, lana, bizilekua	52,3	47,3	48,3	51,3	46,0	47,1	93	96	95	89	91	91	1,50	1,70	1,60	1,20	1,70	1,60	83,3	82,1	82,3	75,0	70,6	71,5
 Bizikidetzatza	51,4	45,6	46,7	50,4	44,6	45,8	90	89	89	89	83	84	0,90	1,00	1,00	0,50	1,20	1,10	71,0	72,2	72,0	63,4	72,2	70,5
 Pertsona	44,0	40,6	41,3	42,7	40,3	40,8	90	89	89	96	91	92	0,90	0,60	0,60	0,50	1,10	1,00	83,8	58,9	64,3	69,8	62,4	63,7
 Osasuna	54,6	52,7	53,1	54,7	53,4	53,7	87	85	85	89	85	85	0,70	0,30	0,40	0,30	0,70	0,70	77,5	67,1	69,4	76,8	70,0	71,2
 Gizartea	58,3	50,8	52,2	58,1	49,3	51,1	97	94	95	96	93	94	0,50	0,10	0,20	-0,30	0,90	0,70	86,1	62,0	65,4	50,0	74,9	73,0

E: emakumeak; G: gizonak

Taula honetan jasotako datuek zenbait adierazle laburbiltzen dituzte. Bizitegiren Osasun mentala eta Droga-mendekotasunak programetan, Irekin nahiz Onartu eguneko zentroan laguntza jaso duten pertsonen banako planetatik lortu dira:

- **Laguntza jaso dutenen profila:** adierazle honetan 1etik 100era arteko balio bat eman zaio pertsona bakoitzari, planean zehaztutako funtsezko eremu bakoitzean. Lor daitekeen puntuazio altuena 100 da.
- **Egoera hobean eta/edo egoera berean dauden pertsonak:** gure zerbitzuetan urtebete eman ondoren hobera egin duten edo egoera berean jarraitzen duten pertsonen ehunekoa. Pertsona bakoitzaren profila aldi horretako bilakaera aztertuz lortzen da.
- **Batez besteko aurrerapen-maila:** zenbat egiten duten aurrera Bizitegiko kideek gure zerbitzuetan urtebete igaro ostean. Pertsona bakoitzaren profila aldi horretan izan duen bilakaera alderatuz lortzen da.
- **Lortutako helburuak:** zenbateraino lortu diren zehaztutako helburuak. Eremu bakoitzeko dimentsioetan helburutzat zehaztutako puntuazioetara zenbateraino hurbildu den neurtuta lortzen da.

Adierazle horiek behar bezala segmentatuta aztertzea garrantzitsua da zerbitzuak ebaluatzeko eta horietan hobekuntzak proposatzeko. Hauek dira 2016ko planetatik ateratako ondorio nabarmenenak:

Bizitegin lagundu ditugun pertsonen **bazterketa-profila** aurreko urteko antzekoa da: eskubide sozialen eskuratzeko maila ona, enplegu-maila txikiak, inguruneari ongi egokituta, desagokitzapenezko jokabide gutxiarekin eta, beraz, arazo penalen indize txikiarekin. Eta pertsonen gaikuntza-arazoak: gaitasunak, trebeziak, prestakuntza, bizi-dinamismoak, aldatzeko prestasuna eta eguneroko bizitzaren antolaketa.

Beste urte batzuetan bezala, pertsona gehienek **egoerak bere horretan jarraitzen du edo hobera egiten du** Bizitegin dagoen bitartean. Dena dela, ehunekoak behera egin du aurten (% 88tik % 81era, hain zuzen), bizikidetzaren arloan eta lanaren eta ekonomia arloan, bereziki.

Eta, aldiz, **batez besteko aurrerapen-maila** hobetu egin da aurreko urtearekin alderatuta. Datu biak konbinatzen baditugu, ikusten da aurten hobera egin dutenak gutxiago diren arren 2015. urtean baino gehiago egin dutela hobera.

2016. urtean gehien landu ditugun **helburuak** eguneroko bizitzaren antolaketa eta osasun mentala izan dira. 3 pertsonatik 2tan jorratu ditugu helburu horiek. Bi dimentsioetan oso emaitza onak lortu ditugu: eguneroko antolaketa hobekuntza handiagoak izan dira, eta osasun mentalari dagokionez, lorpen nagusia osasun mentala hobetzea baino osasun mentalaren egoerari eustea izan da.

Aurreko urteetan bezala, ikusten da laguntza gutxieneko tresnetan laguntzen diren pertsonak (Onartun, batez ere) direla autonomoenak. Baldintza okerragoak dituzte, baina lortzen dutena beren ahaleginari esker lortzen dute, eta ez Bizitegikook ematen diegula.

Datuak sexuaren arabera aztertzen baditugu, zenbait ondorio interesgarri aterako ditugu:

- 2 urte hauetan, Bizitegin lagundu ditugun emakumeak gizonak baino egoera hobekoan daude. Osasunaren arloan dago alderik txikiena.
- 2015. urtean emakumeek gehiago egin zuten hobera gizonak baino, eta 2016. urtean, berriz, kontrako gertatu da: gizonak askoz gehiago egin dute hobera.
- 2016. urtean lorpen-ehuneko bera izan dute gizonak zein emakumeek. 2015. urtean, berriz, emakumeek emaitza hobekoak lortu zituzten.

Itunak, sareak eta foroak



SAREAK

- **EAPN.** Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren Europako Sarea. Euskadiko zuzendaritza batzordeko kide gara, eta hauetan parte hartzen dugu: Partehartzea, Gizarte-gertakizunak, Inklusioa eta Emakumea. Eta, EAPNren ordezkari gisa, Bilboko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Udal Kontseiluko Etterik gabeko pertsonen gaiak lantzeko batzordean.
- **Beste BI.** Etxebizitza eskubidearen eta etxerik gabekoen aldeko plataformaren talde eragileko kide gara.
- **Gizardatz.** Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkarte.
- **Harresiak apurtuz.** Etorkinen aldeko Euskadiko GKEen koordinadora.
- **UNAD.** Drogaren mende dudenei laguntzeko elkarte eta entitateen Espainiako Batasuna.
- Etxerik gabekoen aldeko **iparraldeko plataforma.**

FOROAK

- **Euskalit.** Kudeaketa aurreratua bultzatzeko Euskal Fundazioa.
- **Bolunta.** Boluntariotzarako eta Partaidetzarako Agentzia.
- **ASVAR.** Birgaiketa Psiko-sozialaren Euskal Elkartearen Zuzendaritza Batzordean parte hartzen dugu..
- **Hirugarren Sektoreko Adierazleen Foroa.** Gizarte-sektoreko zenbait erakundek sustatutako ekimena, kudeaketa hobetzeko.

ITUNAK

- **Bidesarirekin** Espetxeko proiekturako.
- **Eguzkiloreekin** Ireki proiekturako.
- **Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearekin** Komunitatearenganako Arreta eta Osaketa Ereduek aurrerapauso bateratu bat emateko.
- **Bilboko Udal Etxebizitzak** erakundearekin, erakunde horren laguntzaz lortutako etxebizitzaren eta lokalen bidez gure laguntza-sarea josteko.
- **Athletic Fundazioarekin,** etxerik gabekoen aldeko ekintzarako.

PARTAIDETZA AUZOETAKO ERAKUNDEETAN ETA ELKARTEETAN

- **Otxarkoaga:** Otxarkoagako Merkataria Elkar-tea, Irola Irratia, Txirula, Imaginatu Otxarkoaga, Otxarkoagako Jai Batzordea, Andre ta Jabe.
- **Errekalde:** Errekaldeko Elkartearen Azoka, Errekaldeko Kultura Ikasgela Proiektua, Errekaldeko kaleratzerik ez - Bizkaiko Hipotekek Kaltetuen Plataforma, Errekaldeko Jai Batzordea, Andre ta Jabe.
- **Uribarri:** Uribarri auzolanean Uribarriko herri-taldean, elkartearen eta mugimenduen aliantza, *Aldapan Gora* Uribarriko Jai Batzordea, *Tantta* Uribarri euskara-taldea, Aletu.



Beste Biren kontzentrazioa, "Apirilaren 28a zubiaren eguna", bizileku-eskubidearen alde



Uribarri Eguna

Bizitegiren laguntza-sarea

ETXERIK GABEKOAK

Eguna joan eta eguna etorri
Bilbon kale gorrian bizi diren
pertsonekin lan egiten dugu.

DROGA-MENDEKOTASUNAK

Droga-mendekotasuna
edo eritasun mental larriak
dituztenekin lan egiten dugu.

URIBITARTE

83 plaza

BILBO

ELEJABARRI

HERNANI

REKALDE

PEÑASKAL



EGUNEKO ZENTROAK

136 plaza
226 pertsonari laguntza
(40E, 186G)

Normalizazioa eta birgizarteratzea helburu hartuta, espazioak eta jarduerak eskaintzen ditugu, erabiltzaileen beharrei erantzuteko eta bertakotasun- eta afektibitate-loturak sortzeko.

	plaza kop.	pertsona kop.
Onartu. Eskak. txi	15	72 (10E, 62G)
(2) Errekalde	25	35 (3E, 32G)
(2) Uribarri	20	37 (3E, 34G)
(3) 105	8	12 (5E, 7G)
(2) (3) Erreabilitazioa	14	16 (5E, 11G)
(2) (3) Irumineta	30	32 (7E, 25G)
(2) (3) Zizeruene	24	27 (8E, 19G)



25 plaza



15 plaza



BIZIMODU INDEPENDENTEARI EUSTEKO LAGUNTZA

	plaza kop.	pertsona kop.
(2) IREKI	12	8 (2E, 6G)

E: emakumeak; G: gizonak

HITZARTUTAKO ZERBITZUAK: (1) Udal-zerbitzua. Bilboko udala (2) Bizkaiko Foru Aldundia (3) Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
2016an HARTUTAKO PERTSONEI BURUZKO DATUAK

OSASUN MENTALA

Arazo nagusizat eritasun mental larriak dituztenekin lan egiten dugu.

URIBARRI



20 plaza

ATERPEA

83 plaza



Oinarrizko beharrianak asetzeko, higiena bermatzeko eta kalteak arintzeko; bai eta etxerik gabekoen kolektiboaren bizi-kalitatea hobetzeko ere.

plaza kop. pertsona kop.

(1) Udalaren Gaueko Aterpe Zerbitzua 83 494 (29E, 465G)



OTXARKOAGA



76 plaza



54 plaza



MINA DEL MORRO



6 plaza



6 plaza

URAZURRUTIA



KOMUNITATEAN ETA GIZARTEAN ESKU-HARTZEA

Bilbon kale gorrian bizi diren pertsonen laguntzen diegu.

pertsona kop.

(1) Klean esku-hartzeko taldea 357 (59E, 298G)

(1) Hezkuntza-laguntzarako taldea (Elejabarriko Udal Aterpetxea) 1.112



BIZILEKUA

71 plaza

80 pertsonari laguntza (21E, 59G)

Bizileku duinak eta inguru egoki bat bermatzeko behar diren zerbitzuak eskaintzen ditugu, bizikidetza eta bizi-kalitate ezin hobea sustatzeko.

plaza kop. pertsona kop.

(2) (3)	Babestutako sarea	42	45 (13E, 32G)
(2) (3)	Iruminetxe	7	8 (1E, 7G)
(2)	Mina del Morro	6	10 (4E, 6G)
(2)	Peñaskal	6	7 (1E, 6G)
	Etxerik gabekoak	10	11 (2E, 9G)

Berdintasuna lantzen

Bizitegik konpromiso argia du berdintasunarekin, eta horren adierazle dira azken urteetan emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna bermatzeko helburuarekin egindako jarduerak, bai eta erakundeak berdintasunaren alde kanpora begira egindako jarduerak ere. Honako hauek dira 2016. urtean nabarmentzen direnak:

Erabiltzaileak ahalduntzea eta maskulinitateak zerbitzuen erabiltzaileekin

- Erabiltzaileei berdintasunari (20 partehartzaile) eta genero-indarkeriari (17 partehartzaile) buruzko prestakuntza ematea.

Martxoaren 8a. Emakumearen Nazioarteko Eguna

- Zenbatu Taldeak "Emaidazu mila moxu" antzezla-na aurkeztea Otxarkoagako Auzo Etxean eta Uri-barriko Artxandape Ikastolan.
- Bazkaria Bizitegin, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko.

Uribarriko jaia

- Auzolanean berdintasunaren aldeko horma-irudia egitea.

Errekaldeko jaia

- Mikro-matxismoei buruzko laburmetraia egitea (saria lortu zuen, gainera).



Berdintasunaren eguna Otxarkoagan

Otxarkoagako jaia

- Berdintasunaren Eguna antolatzea, Otxarkoagako jaietan, Andre ta Jaberren barruan (Txapen tailerra, bazkari herrikoia eta Zenbatu Taldearen antzezla-na: Emaidazu Mila Moxu).

Azaroaren 25a. Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

- 2016/11/15.- Herritarrak sentsibilizatzea. Oholtzak Hareatzan. Emakunderen autobusa.
- 2016/11/25.- Herritarrak sentsibilizatzea Otxarkoaga, Uribarri eta Errekalde auzoetan. Standak.
- Mikro-matxismoei buruzko laburmetraia egitea Andre ta Jaberekin eta Otxarkoagako Merkatarikartaren laguntzarekin.
- Errekalden Amezolan gertatutako sexu-eraso bat salatzen egindako kontzentrazioan parte hartzea.

Bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egiteko neurrien plana diseinatzea

Prestakuntza-jardunaldia erakundeetan ezar daitezkeen bateragarritasun-neurriez hitz egiteko, langile guztien parte-hartzearekin.



Azaroaren 25eko kanpaina



Herritarren sentsibilizazioa



Bazkaria Bizitegin. Emakumearen Nazioarteko Eguna

Kudeaketa aurreratuarekin konpromisoa

Bizitegi Erakundeak **Kudeaketa Aurreratuari Zilarrezko Aintzatespena** lortu du EUSKALITEKO Ebaluazio Klubak egindako kanpo ebaluazioan. Hortaz, EUSKO JAURLARITZAK aintzat hartzen du aipaturiko helburua lortzeko egin den ahalegina. Hori garbi islatzen da azken urteotan kudeaketa hobetzeko eta berritzeko egindako ekintzetan, horien bidez hobetu egin baita erabiltzaileen, profesionalen, boluntarioen, gizartearen eta gainerako talde interesdunen asebetetze-maila.



Zilarrezko A Aintzatespena Kudeaketa Aurreratuari

Urtea

Mugarriak

2016

Kudeaketa Aurreratuari Zilarrezko Aintzatespena

2015

Berdintasun-diagnostikoa eta Berdintasun Plangintza

2014

Kudeaketa aurreratuaren ereduaren arabera egindako bosgarren autoebaluazioa. Euskaliten kanpo- alderaketa

2015-2018ko III. Plangintza Estrategikoa, Aukera 18

2013

Berdintasun-diagnostikoa

EFQM ereduaren arabera egindako laugarren autoebaluazioa. Euskaliten kanpo-alderaketa

2012

Ingurumen-kudeaketaren sustapena

2011

Bekadunen eta praktketan daudenen asebetetzea Elkartearen asebetetzea



Prestakuntza-jardunaldiak

2010

Bidelaguntza-eredua, Banako plangintzaren metodologla
Prozedura-maparen berrikuspena / Prozeduren berrikuspena
Finantza-erakundearen asebetetzea
Lehen 5S Proiektua
Euskaliten kanpo-ebaluazioetan parte hartzea

2009

II. Plangintza Estrategikoa (2010 – 2012 / 2014)

Euskaliten kanpo-alderaketa. EFQM ereduaren arabeko hirugarren autoebaluazioa
Lidergo Programa. EDE fundazioa

2008

Euskaliten Ebaluazio Klubarekin bat egitea
Boluntarioen asebetetzea

2007

Lidergo Plangintza eta lidergoaren ebaluazioa

2006

Euskaliten kanpo-ebaluazioa

2005

EFQM ereduaren arabera egindako bigarren autoebaluazioa
Aginte Taldearen osaera. Prozedura-maparen definizioa. 2005eko Kudeaketa Planaren diseinua, garapena eta berrikuspena

2004

2005-2009ko I. Plangintza Estrategikoa

2003

Kalitate-arloko trebakuntza elkarteko kide guztientzat

2000

Bikaintasuna lortzeko lan egiteko apustu formala
EFQM eredu kudeaketa-eredutzat aukeratzea
EFQM ereduaren arabera egindako lehen autoebaluazioa

1999

Irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzeko Euskaliten programako partaide
Erabiltzaileen eta langileen asebetetze-mailari buruzko inkestak

1997

Lehen urratsak kalitate-arloko prestakuntzan



“Gizarte ekintzan praktika berritzaileak”. Eskakizun txikiko azterketa. Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astea

Bizitegiren 2016ko jardunaren txosten ekonomikoak emaitza orekatu bat erakusten du. Jardun horretan, lankidetzaz-hitzarmenak eta diru-laguntzak dira finantziazio-iturri nagusiak. Gastu nagusiak, berriz, baztertuta daudenei laguntzen dieten langileen soldatei, zerbitzuei, alokairuei eta azpiegituren mantentze-lanei dagozkie.

SARRERAK	€	%
Hitzarmenak eta diru-laguntzak	3.230.877	% 91
Erabiltzaileen ekarpenak eta donazioak	246.084	% 7
Finantza-sarrerak	753	% 0
Beste sarrera batzuk	22.284	% 1
Ekitaldira ekarritako diru-laguntzak eta donazioak	40.272	% 1
GUZTIRA	3.540.270	


GASTUAK	€	%
Langileen soldatak	2.873.057	% 81
Alokairuak eta azpiegituren mantentze-lanak	249.209	% 7
Erabiltzaileentzako beste zerbitzu batzuk	176.894	% 5
Erosketak eta jarduerarako hornikuntza	154.934	% 4
Inbertsioen amortizazioa	93.522	% 3
GUZTIRA	3.547.616	

Kontuen enpresa ikuskatzaileak, Euskoaudit SAPk, egindako txostenean jasotzen denez, urteko kontu horiek zintzotasunez erakusten dituzte Bizitegiren ondarea eta finantza-egoera.



Gardentasuna. www.bizitegi.org

SARRERAK 2016



GASTUAK 2016

